

ALKATEARI

Talde Popularraren bozeramaile Borja Corominas Fisasek, Udalbatzaren Organo Araudiaren 98. artikulua ematen duen babesa aintzakotzat hartu eta KONTROL MOZIO hau aurkeztu du, Gune Publikoen Batzordean (Obrak eta Hiri Zerbitzuak) Urgull mendiaz egindako interpelazioaren ondorioz.

JUSTIFIKAZIOA

Urgull mendiak jarduketa kosmetiko bat baino gehiago behar du, jarduketa integral bat behar du: zuhaitzei eta landareei kontu egitea ez eze, batez ere ondare-elementu eraikiei kontu egitea, oso-oso gaizki kasu eginda daude-eta elementu horiek. Ingelesen Hilerriak, konparazio baterako, zaharberritze osoa behar du; Motako gazteluko harresia higatuta dago, eta arrisku handia jartzen du; elementu historikoak ia ez dira ezagutzen, eta oharkabean pasatzen dira; Jesusen Bihotza segituan berritu beharrean dago.

Gure inguruko edozein hiritan, zaindutako eta errespetatutako gauza izango litzateke Urgull mendia eta han den ondarea, donostiarrek eta bisitan etortzen diren guztiek gozatu ahal izateko. Horiek horrela direla, hauxe da gure

KONTROL MOZIOA

1. Donostiako Udalaren Osoko Bilkurak Gobernu Taldeari eskatzen dio zaharberritzeko Ingelesen Hilerria eta hura osatzen duten eskultura-multzo guztiak.
2. Donostiako Udalaren Osoko Bilkurak Gobernu Taldeari eskatzen dio zaharberritzeko Motako gaztelua, eta nabarmentzeko hura osatzen duten ondare-elementu guztiek daukaten balioa.

3. Donostiako Udalaren Osoko Bilkurak Gobernu Taldeari eskatzen dio zaharberritzeko Urgull mendian diren ondare-elementu guztiak, garbitzeko pintadak eta egokitzeko bideak eta kaleko altzariak.
4. Donostiako Udalaren Osoko Bilkurak Gobernu Taldeari eskatzen dio jartzeko Urgull mendiaren ondarea errespetatzeko jarri behar diren segurtasun eta kontrol neurriak, eta zigortzeko haiek hondatzen dituztenak.

Donostian, 2025eko urtarrilaren 24an.

Borja Corominas Fisas

Alderdi Popularraren udal taldearen bozeramailea.